Bizkaiko eta Gipuzkoako dantzak

Dantza ezberdinak

Dantza soinuak

[dantzan.com](#)

Hemen zaude: [Hasiera](#) → [Albisteak](#) → XLV Euskal Jaia Eibarren; Ezpalak dantza-jauzien nazioarteko jaialdia.

XLV Euskal Jaia Eibarren; Ezpalak dantza-jauzien nazioarteko jaialdia.

2010/05/27

Aurtengoa, Eibarko Euskal Jaiaren 45. edizioa da. Klub Deportiboaren eta Kezka Dantza Taldearen antolatze-lanari esker datorkigun jaiak, herriko beste hainbat elkarteren laguntza ere badu. Gainera, **"Ezpalak"** ikuskizuna, dantza-jauzien nazioarteko jaialdia, Iruñatik Eibarrera dator domekan.

Hona hemen programazioa:

Maiatzak 27, osteguna

- Kalamuako Parlamentuko lehiaketa, Deporrean, 19:30.

Maiatzak 28, ostirala

- Kalian jolasian eta Zurrumurruka zirko eskola txikia, 17:00etan Untzagan.
- Gose Taldearen kontzertua 22:30etan, Untzagan:

Maiatzak 29, zapatua:

- ARTISAU ETA BASERRITARREN AZOKA: 10:00 - 14:00 Toribio Etxebarria kalea
- HERRI KIROLAK ETA BERTSOLARIAK: 12:00 Toribio Etxebarria kalea
- ESKOLEN ARTEKO HERRI KIROL LEHIAKETA: 13:00 Toribio Etxebarria kalea
- A.E.K.ko TALOPOSTUA: 10:00 - 14:00 Toribio Etxebarria kalea
- KALE ANIMAZIOA: bertso triki parranda herrikoia: 18:30
- KANTU AFARIA: 22:00 karpan
- ERROMERIA: JAINAGA ETA NARBAIZA: 23:00 karpan

Maiatzak 30, domeka, Euskal Jaia:

- EUSKAL JAIKO KALEJIRA: 12:00 Urkizutik Untzagara
- EZPALAK**, DANTZA-JAUZIEN NAZIOARTEKO JAIALDIA: 12:30 Untzaga Plaza. Kezka Dantza Taldea, Baztandarra, Zuberoako dantzariak, Maritzuli, Ossau haraneko folklore-musika eta dantza, Añoar Ttipi... ([Ezpalak ikuskizunaren esku-programa, PDF](#))
- HERRI BAZKARIA: 14:30 karpan
- ERROMERIA: AIKO 17:00 Untzaga plaza
- LARRAIN-DANTZA: 19:00 Untzaga plaza
- LARRAIN-DANTZA: 20:00 Deportiboaren parean



Eibarko Euskal Jaia 2010

Bidali

Inprimatu



Ego Ibarra Batzordea - Eibarko Udala
Untzaga Plaza - 20600 Eibar
943 708 421 - [e-posta](#)

[WEB MAPA](#)

[IRISGARRITASUNA](#)

[KONTAKTUA](#)

[NOR GARA](#)

[OHAR LEGALA](#)

Dantza-jauziak eginez helduko da Ezpalak jaialdia asteburu honetan

AURTENGO EMANALDIAREN LEHENENGO GELTOKIA **IRUÑEA** IZANEN DA, LARUNBATEAN

2010eko edizioan Nafarroako hiru dantza talde ariko dira: Duguna, Baztandarrak eta Luzaideko bolant-dantzariak

ARKAITZ A. MURO
IRUÑEA. “Dantza guztien artean originalenak, berezienak, zientifikoenak, esan genezake, dantza jauziak dira”. Honako hitzekin biltzen du Jean Michel Guilcher dantza ikertzaile frantsesak Euskal Herriko Dantza-jauzien inguruko informazioa. Eta arrazoirik ez zaio falta. Euskararen herriko kulturak dituen ikur nagusien inguruan hitz egiten denean, orokorrean, dantza mota honen ezaugarriak azpimarratzen dira. Hori dela eta,

modu batean merezi duen omenaldia egiteko, Ezpalak jaialdiak aurtengo edizioko izar bihurtu ditu. Era honetan, aste bukaera honetan Iruñean (larunbata) eta Eibarren (igandea) egingen den emanaldian Euskal Herriko eta atzerriko dantza genero honen erakustaldia egingen da. Aurtengo jaialdia sei taldek osatuko dute, eta horietatik hiru nafarrak izanen dira: Iruñeko Duguna dantza taldea, Baztango Baztandarrak eta Luzaideko bolant-dantzariak.

IRUÑEKO EGITARAUA

- **17.30ean.** Kalejira Alde Zaharreko karriketan barrena.
- **18.00etan.** Dantza saioa, Burguen plazan. Emanaldian ondorengo taldeek hartuko dute parte: Duguna dantza taldea (Iruñea), Baztandarrak (Baztan), Osseu haraneko musika eta dantza taldea (Osseu, Biarno), Luzaideko bolant-dantzariak (Luzaide), Argia dantzari taldea (Donostia, Gipuzkoa) eta Maritzuli konpainia (Baiona, Lapurdi).
- **Emanaldia amaitzean.** Dantzaldi irekia Aiko taldearekin.

EIBARREKO EGITARAUA

- **12.00etan.** Kalejira herrian barna.
- **Emanaldia.** Kalejira amaitzean, jaialdia hasiko da.
- **17.00etan.** Erromeria Aikorekin.

Iruñeko Duguna eta Eibarreko Kezka dantza taldeek elkarlanean antolatzen duten jaialdiak, bosgarren urteari eustiko dio aurtengoan. Duela lau urte ekin zioten abentura honi, eta urtez urte gai bati lotuta egon den emanaldia eskaini diete herritarrei, besteak beste, Ezpata-dantzak, Makila-dantzak, Arku-dantzak, eta Karaktere dantzak irizpide izan dituzten ikuskizunak.

Honekin guztiarekin batera, urte hauetan zehar Ingalaterra, Flandes, Frantzia, Portugal, Katalunia, Valentzia, Gaztela eta Galiziako dantzariak gonbidatu dituzte. Izan ere, antolatzaileek diotenez, “desberdintasunak baino, kulturua koreografiko horien guztien arteko antzekotasunak nabarmentzeko ahalegina da Ezpalak”. Zalantzarik gabe, gal ez daitekeen hitzordua izanen da asteburukoa.



Patxi Uribarren. ARGAZKIA: ARTXIBOA

PATXI URIBARREN, EUSKARAREN AKADEMIAN SARTZEKO PREST

Sarrera-ekitaldia ostiralean izanen da, arratsaldeko 18.00etan, Aramaion

IRUÑEA. Datorren ostiralean, hilaren 28an, Patxi Uribarren idazleak Euskaltzandiko euskaltzain osoen zerrendan idatziko du bere izena. Era horretan, aramaioarra Euskararen Akademian sartuko da, eta hemendik aurrera bere eserlekua izanen du, euskal hizkuntza zaintzeaz arduratzen direnen artean. Ekitaldia Aramaion egingen da, Ibarra elizateko San Martin elizan, arratsaldeko 18.00etan.

Patxi Uribarren Leturiaga Aramaion jaio zen, 1942an. Karmeldarra da. Filosofia eta Letretan lizentziatua –tesi txikia egin zuen *Aramaio*ko toponimiari buruz– eta Teologian lizentziatua. Bizkaiko Foru Aldundian itzultzaile ofiziala izana da, 1983tik 2007ra arte.

ERAKUSKETA Euskaltzaindiak erakusketa bat antolatu du Aramaion. Erakusketa maiatzaren 21etik hilaren 30a bitarte egonen da ikusgai Aramaioko Sastinán. ▶**D.N.**



Dantza-jauziak desagertzeko zorian izan ziren, baina 60. hamarraldian, ikertzaileei eta sustatzaileei esker, egoera aldatzea lortu zen. ARGAZKIA: UTZITAKOA

KRITIKA > LITERATURA

Estilo-ariketa

Izenburua: *Ikusezin*. Jatorrizko izenburua: *Invisible*. Egilea: Paul Auster. Itzultzailea: Oskar Arana. Argitaratze urtea: 2009. Argitaletxea: Alberdania.

ANDER ARANA

KARLOS del Olmok *Gizona ilunpean* eleberriri buruz egin zuen kritikan ondo zioenez, Austerrren zaletu eta kritikari asko itxaropentsu bezain pozik egoten dira haren idazlan berri bat iragartzen duten bakoitzean, baina, halako batzuen iritziz idazlea (ezen ez zinegilea) apur bat maldan behera hasita dago. Ikusezin honetan, ordea, bere mamu guztiak dantzan jarrita, brooklyndarrak joerari buelta eman dio eta bere eleberririk borobilenetako bat eskaini digu. Igartzen zaio egileari helduaro bete-betean dagoela eta, hamahiru eleberririk idatziagatik, oraindik ere gai dela ia urtero labe-

tik ale bat ateratzeko eta bere jarraitzaileak gogobetetzeko. “Beldurrak bultzatzen gaitu arriskuak hartzera eta gure muga ohikoez harantzago joatera, eta zaila da oinarri seguruekin ari dela uste duen idazleak baliozko gauzarik sortzea”, diotso eleberraren pasarte batean Freeman (Auster?) mai-suak laguntza eske joan zaion Walker gaixoari. Emaizta ikusita, merezi izan dio, bai, arriskuak hartzeak, hartara lortu baitu idazle post-modernoaren gidaliburu izan daitekeen aramu sare hau ehotzea. Kon-tatzen duen istorioak hasiera-hasieratik harrapatzen zaitu: literaturikasle batek bikote frantziar bat ezagutu du festa batean, eta New Yorketik Parisa eramango gaituen thriller erotiko bat biziko dute hortik aurrera. Nire ustez, baina, horrek baino indar handiagoa du eta horren gainetik dago irakurlea aramu

sarean harrapatzeko Austerrekin dabilen teknika. Liburuak lau zati ditu, eta zati bakoitzak narratzaile bat du. Lehen-dabizikoan, Adam Walker gazteak lehenengo pertsonan kontatzen du nola ezagutu zituen Rudolf eta Margot, eta, heriotza bat tarteko, nola bukatu zen, ustez, haien artekoa. Bigarrenean, ikuspuntua aldatu egingen da, Austarren iritziz bigarren pertsona baita “beldurrik handiena ematen duena, istorioari buelta ematen laguntzen duelako. Walkerri bere buruarengandik urruntzeko balio dio, eta irakurleari, berriz, narratzailearen larruan jartzeko”. Bestela ezinezkoa izango zen bigarren zati horretako intzestua modu hain natural eta sinesgarrian kontatzea. Hirugarren zatian, berriz, Freemanek berridatzi egin behar ditu Walkerrek hil aurretik bidali zizkion oharra. Eta laugarrenean, azkenik, protago-

nistarekin gaztetan maiteminduta-ko neska baten egunerokoari esker jakingo dugu eleberririk honetan dena dela mozturro, izen bakoitzaren atzean beste bat dagoela ikusezin, eta guztiaren atzean, ikusezin bera ere, Auster magoa dagoela. Zer da, bada, egia eta zer gezurra Adam Walkerren kontakizunean? Dena da egia, edo dena gezurra, baldin eta bere arreba Gwyni sinesten badiogu. Austarren emazte Siri Husvedt idazleak adierazi zuenez, liburua irakurri zuenean pentsatu zuen haien arteko harremanari buruzkoa zela bertan kontakizunean? Dena da egia, edo dena gezurra, baldin eta bere arreba Gwyni sinesten badiogu. Austarren emazte Siri Husvedt idazleak adierazi zuenez, liburua irakurri zuenean pentsatu zuen haien arteko harremanari buruzkoa zela bertan kontakizunean? Dena da egia, edo dena gezurra, baldin eta bere arreba Gwyni sinesten badiogu.

zuen hainbeste maite zituen olerkari frantziarrak itzultzen, Austerrri ere hil zitzaion hurko bat umetan, Auster ere bizi izan zen Parisko hotel zikin batean... Woody Allenek eta Philip Rothek bezala urtero-urtero lan bat argitaratu beharrak (Ikusezin argitaratu denarako bukatua du hurrengo eleberria, Sunset Park) gainbehera ikusezin batera zeramala konturatu orduko eman dio buelta Austerrekin egoerari, Oskar Aranaren itzulpenari esker euskal irakurleak ondo asko frogatu ahalko duenez. Honekin lau eleberririk itzuli dizkio aramaioarrak euskarara, Brooklyn-go erokeriak (2006) eleberritik hasita gaur arteko guztiak hain zuzen ere, Austarren euskal ahotsa bihurtzeraino; hortaz, Austerrekin urtean eleberririk bat idatzeko ohiturari eusten badiu, Oskarrek ez du, ez, asperetzeko betarik izango.

Hasiera » Albisteak » Ezpalak, dantza tradizionalaren nazioarteko jaialdia 2010

Ezpalak, dantza tradizionalaren nazioarteko jaialdia 2010

2010-05-26

Aurtengo Ezpalak jaialdian dantza-jauziak izango ditugu ardatz, eta maiatzaren 29an Iruñean, eta 30ean Eibarren, talde eta dantzari bikainen eskutik dantza-jauzien eredu, estilo eta tradizio desberdinak ikusi eta ezagutzeko aukera izango dugu. Horretaz gain, dantzaldia ireki eta edonork parte hartu eta gozatu ahal izateko dantza-jauzien ekitaldiek osatuko dute gure jaialdia.



Ezpalak
dantza tradizionalaren nazioarteko jaialdia
2010eko maiatzaren 29 eta 30 - IRUÑEA - EIBAR

Maiatzak 29, larunbata IRUÑEA	Maiatzak 30, igandea EIBAR
17:30 Kalejira alde zaharreko karriketan barna.	12:30 Eibarko XLV Euskal-Jaiko Kalejira Urkizutik Untzagaraino.
18:00 EZPALAK dantza-jauzien nazioarteko jaialdia Burgoen plazan. Euskal Herriko eta atzerriko dantzen erakustaldia. *Segidan: dantzaldi irekia Aiko taldearekin.	12:30 EZPALAK dantza-jauzien nazioarteko jaialdia Untzaga plazan. Euskal Herriko eta atzerriko dantzen erakustaldia. *Segidan: dantzaldi irekia Aiko taldearekin.
17:00 Erromeria Aiko taldearekin.	
Baztandarrak (Baztan), Maritzuli konpainia (Lapurdi), Aiko taldea (Bizkaia), Luzaideko bolantak (Luzaide), Argia dantzari taldea (Donostia) Ossau haraneko folklore-musika eta dantza (Biarno), Kezka dantza taldea (Eibar), Duguna dantza taldea (Iruñea)	

ANTOLATZAILEAK:


LAGUNTZAILEAK:


Dantza-jauziak egiteko modu desberdinak ekarriko ditu 2010eko ezpalak jaialdiak: Lapurdi eta Nafarroa Beherean dantza-jauziak egiteko izan diren eredu desberdinak ekarriko ditu Maritzuli konpainiak Aiko taldearen musikak lagunduta. Argia dantzari taldeak 60ko hamarkada bukaeran Zuberoan eta Nafarroan Beherean ikasitako dantza-jauzien tradizioa aurkeztuko du. Biarnoko musikari eta dantzari talde batek Ossau bailarako sauts edo jauziak eskainiko ditu. Luzaideko dantzariak, Nafarroa Garaia eta Behearen arteko mugan bolantek dantzatzan dituzten jauziak ekarriko dituzte. Baztandar dantzari talde batek baztango mutil-dantzak eskainiko ditu.

Taldeen emanaldia bukatuta dantzaldia ireki eta Aiko taldeak dantza-jauziak jotzen jarraituko du, nahi duten guztiek dantzatu eta gozatzeko jarrai dezaten.

Ezpalak dantza-jauzien jaialdiaren egitaraua

Maiatzak 29, larunbata, Iruñea

17:30 Kalejira alde zaharreko karriketan barna

18:00 Ezpalak, dantza-jauzien nazioarteko jaialdia Burgoen plazan. Euskal Herriko eta atzerriko dantzen erakustaldia:

- Duguna dantza taldea – Iruñea (Nafarroa)
- Baztandarrak – Baztan (Nafarroa)
- Ossau haraneko musika eta dantza – Ossau (Biarno)
- Luzaideko bolant-dantzariak – Luzaide (Nafarroa)
- Argia dantzari taldea – Donostia (Gipuzkoa)
- Maritzuli konpainia – Baiona (Lapurdi)

Segidan: Dantzaldi irekia Aiko taldearekin. Dantza-jauzien inguruan prestatu duen *Urraska* CD-Liburuaren aurrerapena egingo du Aikok.

Maiatzak 30, igandea, Eibar (Eibarko Euskal Jaiaren baitan)

12:30 Ezpalak, dantza-jauzien nazioarteko jaialdia Untzaga plazan. Euskal Herriko eta atzerriko dantzen erakustaldia:

- Kezka dantza taldea – Eibar (Gipuzkoa)
- Baztandarrak – Baztan (Nafarroa)
- Ossau haraneko musika eta dantza – Ossau (Biarno)
- Argia dantzari taldea – Donostia (Gipuzkoa)
- Maritzuli konpainia – Baiona (Lapurdi)

Segidan: Dantzaldi irekia Aiko taldearekin. Dantza-jauzien inguruan prestatu duen *Urraska* CD-Liburuaren aurrerapena egingo du Aikok.

17:00etan Erromeria Aiko taldearekin.

Ezpalak jaialdiaren bloga

eremuak



Ikusizko arteak

Arte eszenikoak

Musika

Ikus-entzunezkoak

Literatura

Artnabategiak, Liburutegiak eta Mediatekak

Museoak

Ondarea

Artisautza

Joerak

Arlo berriak, Diseinua, Bestelakoak



albisteak



2010-05-26

Profesionalak eta amateurak Maileko maiatzeko antzerki jaialdian

Maulen urtero maiatzean egiten den antzerki jaialdian profesionalen eta amateurren arteko lotura bultzatu nahi izan dute aurtén. Bestalde, Maiatza Eszenatokian...

2010-05-26

Ezpalak, dantza tradizionalaren nazioarteko jaialdia 2010

Aurtengo Ezpalak jaialdian dantza-jauziak izango ditugu ardatz, eta maiatzaren 29an Iruñean, eta 30ean Eibarren, talde eta dantzari bikainen eskutik dantza-jauzien...

2010-05-26

Elurretan taldeak agur esango digu

Taldeak bere webgunean adierazi duenez, ez dago arrazoi berezirik proiektua bertan behera uzteko, "besterik gabe, horrelaxe gertatu da". Irailaren 11n...



albiste +

azken iruzkinak



Miralanima

Max Sarietako hanka-sartze handia

H. Etxeberria

Joxantonio Ormazabal idazle eta editorea hilda aurkitu dute bart

txema

Bilbok Arteari eta Teknologiari buruzko "Technarte" Nazioarteko Biltzarra hartuko du apirilean

Iñaki

Azken urteotan egindako katalogazio-lan nekezaren ostean, Kultura Ondarearen Zuzendaritzak talaiet buruzko liburu hau argitaratu du

Camy

Txibien arteko komunikazioak emango dio hasiera Urpeko Zinema Jaialdiari

arriaga antzokia berria.info

bertsolaritza **bilbao** bilboko udala

bizkaiko foru aldundia blanca urgell

dantza diariavasco.com

donostia-san sebastián

eitb.com elcorreo.com

elpais.com eragileak_antzerkia

erakusteta euskalduna jaurenia

...eta kitto!

723 zkla. 2010-V-28

ASTEKARIA

TOKIKOM

45. Euskal Jaia asteburu osoa dantzan jartzeko



DESGUACEDeba

Itxaspe auzoa, 35 - 2. sol. (peaje ondoan) PK 86 - 20820 DEBA - ITZIAR
Tel. 943 199 492 / 943 199 210 Mobila. 627 373 999
desguacedeba@desguacedeba.com





Aurreko domekako "Aurrez Aurre" dantza ikuskizunarekin hasi zan aurtengo Euskal Jaixaren ediziñua, 45.ena. Atzo arratsaldian Deporren jokaturako Kalamuako Parlamentuko lehiaketiarekin heldu zetsan barriro aurtengo programaziñuari eta gaurtik domekaraiño ez dau atsedetik hartuko: musikia, dantzia, ferixia, herri-kirolak, umiendako jokuak, triki-parrandia, afari eta bazkarixak... Danetik gozatzeko aukeria izango da, ixa mugidu barik kalia bertan izango dogulako ikuskizunetako partaide izatia... **BASARRITTAR JANTZITTA BADA, HOBE!** Hori da Deporreko antolatzailliak egindako deia.

Astebururako plana eskintzen dau Euskal Jaixak

Gaur, 17.00etatik aurre-
ra, 5etik 8ra urte bittar-
tekuak eta euren gura-
suak jolasian jarduteko aukerai
izango dabe Untzagan. **Txispi-
tak, Txisposak eta Katxarrok**
lagun-girua zirko-girua bihurtu-
ko dabe. Ikasturtian ikastetxie-
tan landutako jolas asko kalera
etarako dira holan eta akroba-
ziak eta malabarrak euren toki-
xa izango dabe Astixak koordi-
nauko daben jolas egitteko tar-
te horretan.

Gabian, 23.00etan hasitta,
izen haundixa lortu daben Arra-
sateko **Gose taldiak kontzertua**
eskinduko dau Untzagan. Trikiti-
xa eta elektronikia uztartuz, bes-
telako musikia egittia lortu dau hi-
rukotiak eta euren azkeneko la-
naren abestixak eskintzeko as-
muarekin datoz, "gure onena
emoteko" diñoskuen moduan.


Erakustaldixak azokian

Ez da bakarra izan egitaraua
antolatzen, baiña bai ardura
gehixen hartuko zebana. Maria-
no Lukek egun zalapartasuak
izan dittu azken aldixan dana lo-
tzen eta **zapatu** goizeko ferixia-
ri garrantzi haundixa emoten
detsa, "herriko jende asko inpli-
katzen dalako". Beste urtietat-
kueri jarraituz, artisauak izango
dira nagusi, baiña ez dira faltako
basarritarrak eta "aurten era-
kustaldixak be izango dittugu:
*Igor Obesok eskinduko deskun
kristal haizatuarena eta raku
modalidadiarena, Zeramika Es-
kolakuak erakutsiko deskuena*",
diño Lukek. **Ferixiak goizeko
10.00etan hasi eta eguerdiko
14.00xak arte** iraungo dau, "Ei-
barko 16 artisauekin eta kanpo-
ko beste seirekin; horrez gain,
zortzi izango dira euren produk-



35 postu izango dira guztira Toribio Etxebarria kalia zapatu goizian. Eguerdixan herri-kirolak ikusteko okasiñua izango dogu. / LEIRE ITURBE

tuak gure eskura jarriko dittuen
basarritarrak". Talo postuan be
goiz osuan jardungo dabe la-
nian, T. Etxebarria kalia.



Eguerd aldian **herri-kirolen
eta bertsolarixen** ordua izango
da. **12.00xetan** Beñat Telleria
eta Goenatxo III.a harrijasotzai-
lliak eta Aritz Irazabal eta Aratz
Mugerza aizkolarixak lanian ha-
siko dira. Betiko moduan, nor-
malian horretan jarduten dabe-
nak dira, baiña gaztiak aldi be-
rian. Iñaki Osoro arduratzen da
jardun hori prestatzen eta, be-
rak dioskunez, "gaztien alde
egitten dogu beti be". Zer esanik
ez, 13.00etan hasiko dan Esko-
len Arteko Herri-kirol Lehiake-



Euskal Jaixa non, trikitilarixak han. Geratu barik ibilliko dira asteburu osuan, parrandiak be neurtu biharrian, baiña asmatuko dabe. / FERNANDO RETOLAZA

Asteburuko proposamenak →



Eibarko Kezka eta Iruñeko Duguna dantza taldeek antolatzen dute jaialdia. BERRIA

Bi egun dantza jauzika

Iruñea-Eibar ◊ Dantza tradizionalaren nazioarteko Ezpalak jaialdia ospatuko dute larunbatean eta igandean

Iñigo Astiz Iruñea

Urratsez urrats hartuko ditu dantza tradizionalak kaleak asteburu honetan, Iruñean eta Eibarren (Gipuzkoa). Bi taldek antolatzen dute Ezpalak izeneko dantza tradizionalaren nazioarteko jaialdia: Iruñeko Duguna eta Eibarko Kezka. Eta bi urratsetan egingo dute dantza jaialdia, horregatik. Iruñean izango dira larunbatean, eta Eibarren igandean.

Gai baten inguruan egitura-

tzen dute urtero jaialdia, eta aurtten, dantza jauziak izango dira ardatz. Dantza genero propioa dira dantza jauziak, eta toki hauetan dantzatzan dituzte: Biar-non (Frantzia), Lapurdin, Nafarroa Beherean, Zuberoan eta Baztanen (Nafarroa). Eta lurraldeotako dantza taldeak izango dira jaialdian ikusi ahal izango direnak.

Izen ezberdina dute dantza horiek batean eta bestean: jauziak, sautsak, mutil-dantzak eta mutxikoak, adibidez; dantza sistema beraren parte dira denak, ordea. Berdin eta ezberdin. Eta hori ikusaraztea da jaialdiaren asmoa.

Dantza talde bakoitzak bere erakustaldia izango du, eta, ondoren, dantzaldi irekia izango da,

animatzen diren guztientzat. Hala izango da larunbatean Iruñean, baita igandean Eibarren ere.

Jauzien hotsa

17:00etan hasiko da jaialdia Iruñean larunbatean, Alde Zaharreko kaleetan egingo den kalejira-rekin, eta 18:00etan izango da eguneko ekitaldi nagusia. Burgoen plazan izango dira Ezpala jaialdian bildutako dantza talde guztiak beren erakustaldia eskaintzen. Eibarren, berriz, goizean hasiko da jaialdia igandean. 12:00etan kalejira izango dute Urkizutik Untzagara, eta 12:30ean ikusi ahal izango da han dantza taldeen erakustaldia. 17:00etan, gainera, erromeria izango da.

Aiko musika taldea ariko da musika jotzen jaialdi guztian. *Urraska. Dantza jauziak Sagasetaren bidetik* izeneko diskoaren aurkezpen moduko bat egiten ibiliko dira, gainera. Lan horretan bildu dute 70eko hamarkadan Miguel Angel Sagaseta ikerlariak Luzaide inguruan (Nafarroa) bildutako jauzien errepertorio osoaren interpretazio musikala. Liburuxka, DVDA eta urrastegiarekin osatu dute CDa.

EZPALAK DANTZA JAIALDIA

- **Noiz.** Larunbatean, 17:30ean, Iruñean, eta igandean, 12:00etan, Eibarren (Gipuzkoa).
- **Non.** Alde Zaharreko kaleetan eta Burgoen plazan Iruñean, eta Untzaga plazan Eibarren.

Amuarrainari eskainitako eguna

Andoain ◊ Zazpi taberna eta jatetxek egun horretarako sortutako amuarrain pintxoak eskainiko dituzte

Eredakzioa Donostia

Leitzararen erreka amuarrainen luxuzko bizitokia da. Andoaingo oso berezko espeziea da amuarraina, eta hori kontuan hartuta, Amuarrain Eguna antolatu dute lehen aldiz Andoainen (Gipuz-

koa). Larunbatean izango da festa, eta goizez egingo dituzte ekitaldiak, 11:00etatik 14:00etara bitartean, hain zuzen. Jai gunea herriaren beheko aldean egongo da: Zumea plazan, Kale Nagusian, Juanita Alkain plazan, Juan Bautista Erron eta Bastero Kulturguneko inguruan. Jaialdia horrekin, Kale Nagusia eta inguruak eta merkataritza gunegarrantzitsuak berpiztu nahi dituzte.

Denetarik izango da: tailerrak, pintxoak eta musika, besteak beste.

Zumea plazan egongo da gastronomiaren txokoa: Gaztañaga sagardogilearen eskutik sagardoa dastatzeko aukera izango da, eta, ondolan, amuarrain errez eta urdaiazpikoz egindako pintxoak zerbitzatuko dituzte.

Gainera, zazpi taberna eta jatetxek amuarraina oinarri duten pintxoak eskainiko dituzte. Bakoitzak errezeta berezi bat sortu du egun horretarako.

Haurrentzako gunea Juanita Alkain plaza izango da. Arrantza eskolako irakasleek kanabera jaurtitzen eta euliak egiten era-

kutsiko diete bertara biltzen direnei. Eulia kirol arrantzan erabiltzen den amu mota bat da. Hain zuzen ere, kirol arrantza herrian oso zabaldua dagoen zaletasuna da.

Eguna girotzeko, adin askotako musikariek osatzen duten Gora Kale Txiki txaranga ibiliko da kalez kale.

AMUARRAIN EGUNA

- **Zer.** Amuarrain pintxoak, arrantza tailerra...
- **Non.** Andoainen (Gipuzkoa).
- **Noiz.** Larunbat goizean.

Santa Luzia ospatzeko kalejira eta kontzertuak Laudion

Anakoz Amenabar Gasteiz

Laudion (Araba) Santa Luzia ospakizunak astelehenean hasi bazituzten ere, iganderako ere ha-maika ekitaldi prestatu dituzte. Goizean goiz hasiko da festa. Ekin Joleak taldearen kalejirak eman-godio hasiera, 11:00etan.

Meza ostean, eguerdian, Santa Luzia abesbatzaren emanaldia izango da elizan. Eta harekin batera, bazkalaurretik, Lotso taldea arduratuko da erromeria pizteaz herriko plazan. Arratsaldean jarraituko du jaiak Laudion, Iluna taldeak jarriko baititu haurrak dantzan. San Roke musika elkar-teak ere kontzertua egingo du, 20:00 aldera, Aldaikoerreka plazan. Gauean, Aiara trikitixa elkar-teak eta dantzariak antolatutako herri kalejirarekin amaitu-ko dituzte ospakizunak.

SANTA LUZIA

- **Non.** Laudion (Araba).
- **Noiz.** Igandean.

Pertsonaia mitologikoz beteko da bihar Leioako Lamiako auzoa

Ibai Maruri Bilbo

Urtero bezala Leioako Lamiako auzoan (Bizkaia) Maskarada ospatuko dute. Tradizioaren arabera inguru honetan Lamiak bizi ziren, eta hortik datorkio izena auzoari. Horiek, baina, ez dira izango bihar Leioako kaleetan ibiliko diren pertsonaia bakarrak.

Hiru atal izango ditu maskaradak. 17:30ean abiatuko dira, Gaztelubideko biribilgunetik Maia-tza, erraldoiak eta dantzariak. 18:00etan Mari eta haren senar Sugaar agertuko dira Lamiaren eskulturaren ondoan, eta Udago-rrri dantzatuko dute bertan. Azke-nik, 22:30ean pertsonaia mitologi-ko guztiek Lamiakoko futbito ze-laian akelarrean parte hartuko dute.

LAMIAKOKO MASKARADA

- **Non.** Leioako Lamiako auzoan (Bizkaia).
- **Noiz.** Bihar, 17:30ean. Akela-rra, 22:30ean.

ANDRÉS RIPOLL INGENIERO DE LA NASA Y LA ESA

“Los astronautas son todavía algo parecido a superhombres”

Ripoll es una de las eminencias españolas en la exploración espacial. Ayer explicó el espacio a los niños del colegio Teresianas de Pamplona

JESÚS RUBIO
Pamplona

Levantó aplausos cada pocos minutos. Claro, que no es fácil que los más de 400 niños del colegio Santa Teresa de Pamplona que escucharon ayer a Andrés Ripoll Muntaner vuelvan a encontrarse con otro hombre que tenga una moneda fabricada con piedra de la Luna y firmada por Neil Armstrong. Ripoll, una autoridad en la investigación espacial, que participó en programas como el del Apolo que llevó al hombre a la Luna o el laboratorio Skylab, entre otros muchos otros, detalló datos y curiosidades de la vida en el espacio. Y tuvo que responder a algunas preguntas sorprendentes. Por ejemplo, ¿cómo se duchan los astronautas?

¿Cómo se duchan, por cierto?

No se duchan. Usan toallas húmedas. Aunque en una ocasión introdujimos una ducha, por probar a crear gravedad donde no la hay.

¿El espacio interesa a los niños?

Hay muchos niños de todas las edades con gran interés. Están por ejemplo muy concienciados con la basura espacial...

¿Están mejor formados que generaciones anteriores?

Están mejor formados que mi generación, en la que muchos no estudiaron. No soy capaz de juzgar si están bien formados, pero en academias como la de ingeniería los catedráticos se quejan de que cuando llega la gente del Bachiller no tienen suficiente formación para una carrera tan compleja.

¿Qué pueden esperar ver estos niños de la exploración espacial?

Han pasado 53 años del Sputnik, y lo obtenido ha sido impresionantemente bueno para la humanidad. Creo que va a seguir siendo igual o mejor. Han sido tan importantes los beneficios que ha dado la investigación espacial en la meteorología, el GPS..., en tantos avances que a esta etapa se le ha llamado la era espacial. De hecho, si alguien pudiera apagar con un botón todos los satélites se produciría una debacle. Y sin embargo,



Los alumnos del colegio Teresianas que abarrotaron el salón de actos.

CALLEJA



Andrés Ripoll, durante su conferencia.

CALLEJA

yo he vivido en un mundo sin satélites. Eso dice hasta qué punto se han hecho imprescindibles.

¿Qué le dice a quien critica el gasto en la investigación espacial en un época de crisis?

Un agregado cultural de la Embajada francesa en Madrid me dijo una vez que el Estado es como un barco. Si tiene una fuga de agua, antes que gastar todo en tapar sin más hay que dedicar algo a inventar lo que arregle del todo el problema. Y hacerlo antes del hundimiento. Pero ese pensamiento

existe incluso en EE UU: Obama ha debido reducir el programa de vuelos tripulados a Marte.

¿Es Marte el gran desafío?

Es complejo. A la Luna se puede ir, hacer experimentos y volver en una semana. Para Marte lo mínimo son tres años. Hay que esperar a que las órbitas de Marte y la Tierra estén en conjunción, algo que ocurre una vez al año. Y se tarda medio año en llegar. ¿Qué se puede sacar de Marte? De momento, nada. Pero si en el futuro queremos explorar otros sitios o crear

colonias espaciales, requeriremos tecnologías que nos permitan viajes de un año.

Ha hablado de la Estación Espacial Internacional. ¿No ha dado menos resultado que otros proyectos más modestos?

Tengo esa misma sensación. Ha sido un programa carísimo. Se pensaba que la condición de ingravidez de la Estación se iba a usar mucho, pero no ha habido tanta demanda. Lo único claro que se ha sacado es aprender a sobrevivir en el espacio. Habrá un día en que empresas necesiten hacer vacunas súperlimpias, mezclar líquidos que en la Tierra no pueden juntarse y otros experimentos que requieran ingravidez. Y harán sus “naves industriales” espaciales. Pero eso ya no requerirá de pedir dinero al contribuyente.

Fundó un centro de entrenamiento de astronautas. ¿Son una especie de superhombres?

Hasta ahora sí, pero quizá en el futuro no lo sean. Hace un tiempo hicimos el experimento de encerrar en un túnel, como ocurre en el espacio, a tres personas con las mismas capacidades que un astronauta. Y vimos que había muchos problemas. Por otra parte, hay una gran demanda para ser astronauta y por tanto eliges lo mejor.

La ENT estrena hoy ‘Donde el viento hace buñuelos’

La obra más reciente del dramaturgo Arístides Vargas es el taller de final de carrera de la Escuela Navarra de Teatro

ANA ZÚÑIGA LACRUZ
Pamplona

La Escuela Navarra de Teatro estrena hoy, y representará este fin de semana y el siguiente la obra de Arístide Vargas *Donde el viento hace buñuelos*, dirigida por el propio autor y Charo Francés, del grupo Malayerba. Xabier Flamarique, Maitane Goñi, Joli Pascualena, Marian Ruiz y Paula Sanz de Valluerca son los intérpretes del espectáculo.

El texto, además de reflejar la diversidad teatral latinoamericana, también refleja según la profesora Onrubia, un rasgo esencial de la compañía Malayerba: “el mucho amor por el teatro”.

Vargas recordó hace una sema-



De izquierda a derecha: Arístides Vargas y Fuensanta Onrubia.

CALLEJA

na, en una charla enmarcada en el Festival Teatro Garrayre, que el teatro de Latinoamérica ya no es lo que era. Ahora es más. O, al menos, hay más, variado y enriquecido. Porque hasta los 80, se hacía en todos los países un mismo teatro caracterizado por “una fuerte im-

plicación política”, recuerda Vargas. “Pero ahora hay diversidad creativa. Y la diferencia enriquece”.

La charla *Una experiencia de teatro latinoamericano actual*, tomó como referente *Donde el viento hace buñuelos*. Una pieza teatral

que plasma “las improvisaciones de dos actrices que se van encontrando en el transcurso de los años en diferentes lugares, como Madrid, Argentina, Ecuador, Puerto Rico, Estados Unidos...”, explica Vargas, que plantea en este texto el tema y “sentimiento contemporáneo” del exilio. “La vida es un exilio, es estar fuera de algo continuamente... No somos completamente felices ni infelices ni pobres...”, reflexiona este actor. “La vida es un profundo desorden”.

La vida son hechos, experiencias, ideas, deseos, como destaca Arístides Vargas, tan diferentes y diversos como las formas teatrales que los expresan. “No hay una sola expresión ni un teatro latinoamericano. Hay teatralidades latinoamericanas y hay realidades, maneras y proyectos diferentes”. Proyectos como el propuesto por Vargas con su más reciente obra, la citada *Donde el viento hace buñuelos*, que se mueve “en una zona intermedia entre interpretación y performance” y que ha sido representada en México, Buenos Aires, Bogotá, Quito y Brasil, entre otros.

Una obra de teatro que refleja la variedad dentro de la realidad y se erige “en impronta contemporánea de lo que se está haciendo en América Latina”, destaca el director.

Festival Ezpalak de danza tradicional, en Pamplona

DN. Pamplona

Pamplona acogerá mañana, sábado, el festival de danza tradicional Ezpalak, con grupos de Guipúzcoa, Lapurdi, Baja Navarra, Baztan y Bearn. Este festival, organizado por los grupos Duguna de Pamplona y Kezka de Eibar, gira en torno a una disciplina distinta en cada edición. Este año los protagonistas serán los *Dantzajauziak* (saltos). Los jauzis conforman un género de danza que se baila en Bearn, Lapurdi, Baja Navarra, Zuberoa y Baztan, pero con distintas características en cada lugar. Un pasacalle por el casco viejo a las 17.30 precederá al festival, que tendrá lugar a las 18 en la plaza de los Burgos. Seguidamente habrá baile abierto a todo el mundo con Aiko taldea. Entre los participantes figuran los grupos Maritzuli, Argia, Luzaide y Juan Antonio Urbeltz, que bailará.